

[Nor gara?](#) [Harremana](#) [Gunearen mapa](#)

Erabiltzaile-izena		Saioa hasi
Pasahitza		
■ Kontua sortu ■ Pasahitza ahaztu egin al zaizu?		

[Hasiera](#) [Foroa](#) [Argazki galeria](#) [Web estekak](#) [Egutegia](#)

Egutegia

Event

Title: IV. Sagar Uzta Argazki Rally Digitala Astigarragan

When: 2011.09.25 - 2011.09.25

Kategoria: Argazki lehiaketak

Description

IV. Sagar Uzta Argazki Rally Digitala Astigarragan

2011ko Irailaren 25an, Igandea, sagarrari eskaintzen zaion *XI. Sagar Uzta* jaiaren barruan, *IV. Argazki Rally Digitala* ospatuko da Astigarragan eta aurten bigarren urtez jarraian, bertako bildumarik onena sarituko da.

Oinarriak:

- Argazkizale guztiek parte hartu ahal izango dute Rally honetan.
- Izen ematea Foru enparantzan (udaletxearen alboan) egingo da Igandean, Irailaren 25an, goizeko 10:00etatik 11:30etara bitartean.
- Izen ematea 3 eurokoa izango da.
- Gaiak: Gaiak izena ematerako orduan jakinaraziko dira.
- Parte-hartzaile bakoitzak 6 argazki aurkeztu beharko ditu JPG formatuan eta gutxienez 300 pixel-etako erresoluzioan.
- Argazki bilduma Irailaren 26tik-Urriaren 1a bitartean entregatu beharko da. Horretarako, www.sagardoetxea.com orrialdetik argazkien deskarga egiteko aukera egongo da.

Sariak:

1. Bildumarik onena: 175 euro.
 2. Bigarren sailkatua: 125 euro.
 3. Astigarragako bildumarik onena: 100 euro.
- Epaimahaia bi argazkilari profesionalak eta diseinatzaile grafiko batek osatuko dute.
 - Urriaren 14an arratsaldeko 19:00tan erakusketari hasiera emango zaio *Sagardoetxean*, rallyko argazkien emanaldi komentatua egingo da eta irabazleei sariak banatuko zaizkie.
 - Oinarri hauetan aurreikusten ez diren arazo guztiak Rally hau antolatzen duen erakundeak ebatziko ditu.

Oharrak:

- Lehiaketara aurkeztutako argazkiak antolatzaileen eskuetan geratuko dira.
- Erakusketa *Sagardoetxea Museoan* izango da Urriaren 14tik 28ra bitartean museoaren ordutegian.
- Saritutako argazkiak eta parte hartzaile bakoitzaren argazki bat erakutsiko dira.
- Rally honetan parte hartzeak, oinarriak onartzen direla esan nahi du.
- Epaimahaiaren erabakia apela ezina izango da.
- Rallyan izena emateak sagardo eta pintxo baten dastaketa barne-hartzen ditu.
- Parte-hartzaile bakoitzak sari bakarra eskuratu ahal izango du.

EventList powered by schlu.net